

Martin Ugalderen perpausa narratiboen harian

Anjel Lertxundi

Garaia, 1976-10-28: 36-37.

Gari eta lasto, denak etxerako

Orain gutti, eta politika kulturalaren pragmatismoa eta puritanismoa bereizi eta aurka jarri genituenean, ez genuen, noski eta Euskal Herriarentzat, espainol kulturarik reibindikatzeko. Kostako bai zaigu geurea Detxeparereren plazara heldu jantziz agertzen. Reibindikatzeko genuena, eta geure egiten genuen *gari eta lasto, denak etxerako* esaera, euskaldunek erdaraz egin duten znbait lan baliotsu zen.

Ezin jakin zergatik, baino errazago konprenitu ditugu erdaraz egindako euskal teknikoek lanak, euskal literatoek erdaraz idatziriko liburuak baino. Erruak erru badira, eta lastorik etxeratu behar ez genukeen kasoan, hain sarobe gutiko litzaizkiguke Jose Migel Barandiaran eta Martin Ugalde, esate batetarako. Logikaren lehen maila puritanismoaz jantz bada, jantzi berberaz apaindu behar ditugu maila guztiak. Pragmatismoaren logikaz abiatu, berriz, konprenitze eta elkar ulertzetara iritsiko gara maila guztitan. Eta irabazian irtengo.

Orekatsu da honako hauk idatzi beharra, eta orekatsua hauek idazten dituenak aspaldian euskaraz idazteko erabakia hartu zuenez. Norberaren buruaz gogor, eta bestearnaz ulerkor. Bizitzaren maila guztitan izaratu behar genituzkeen hitzok baliotsuak zaizkigu une honetan ere.

Gainera, literaturgintzaren hizkuntza nahiko zaila bai da. Tekniko hizkuntza bezan zaila, guttienik. Tamalez, euskara teknikarako moldatzen ari gara, baina ez gara, hein berdinen, narratibagintzarako euskara moldatzen ari. Agian, narrazio batetan, euskararen aditz sistemak duen laguntzaileen beharrak, oztopo haundiagoa dakarkiote idatziaren balioari, tekniko lan bati baino.

Begietan goiti harturik ote?

Ez dut hala ere, erdaraz idatzi dutenen defentsa egin nahi, haien konprenitzetara iritsi baizik.

Modu honetan, errebista honen "Vida cultural vasca" sekzioak gure euskal kulturaren alde ihardun diren eta diardutenen ezagutza eskaini nahi litzateke, eta Euskal Herri osora zabal.

Uztaren hamarrenera iristen ez bada ere, zerbait eskaini nahi nioke nik neure ikuspegitik euskaldunek erdaraz egin duten zenbait lan baliotsuri. Jose María Salaberriaz mintzatu ginenean, haren izena reibindikatu nahi izan genuen.

Gaur lumeratzen dugun gizona, gustokoa dut oso –ezin uka– eta, bestez, ezin uka, ezta ere, bere bizitza guztia Euskal Herriari eskaini dionik. Nere hitz hauek omenaldi nahi lukete izan, eta nere hitz hauek Martin Ugaldek zenbaitengandik jaso izan dituen irainen sendagarri nahi lukete izan. Gainera, Jose Maria Salaberria eta Martin Ugalde, talante, umore, ideologia, Euskal Herriarenganako sena ezberdinetako gizon izanik. Iraganaren eta orainaldiaren arteko konparaketak hain justuak ez badira ere.

Hona hemen, bada, arrazoin zenbait eta ikuspegi zenbait Martin Ugaldez iharduteko.

Arrotz kaleko eta...

Arteak baditu bere era konkretuak, teknika bereziak, baina Sorjin-eko gertaeren atzetik, Venezuelen idatziriko ipuinen sarobetzan, sei euskaldun interesgarriekin izandako hizketaldien gibelean, zazpigarren bat dago, idazlea. Eta idazleak bere mundu konkretoa agertzen digun mundua eta mundu hori ikus eta aztetzeko era partikularra, bereizia baizik.

Gainera, eta Sklovski errusiar kritikoak badu honetaz ideia apartik, errealitatea aldatzen doan neurrian aldatuko da errealitate hori aztetzeko modua ere. Errealismoa ezin daiteke artearen garai guztitan era berdin-berdinetan har. Modu honetan, Gogol-en errealitatea aztetzeko era eta Ernesto Sábato-rena arras ezberdinak dira. Nahiz eta biek arteari buruzko pentsamenduak berdintsuak izan. Errealitatea ez da bat, ez da inmutable, aldaezin. Ez eta errealitate hori diagnostikatzeko modua ere. Prozesu hau garbi ikusten garai batetako idazle batengandik (Gogol), beste garaitako idazle batetara (Sábato). Baina berdin gerta daiteke idazle batek bere betetzen dituen aroetan.

Eta hau argi bezain garbi ikus daiteke Martin Ugalde-gan. Gerra ondorengo politik egoera klandestinoak bultzatu zuen "Iltzailleak" obra idaztera, eta garaia hartako euskarari buruzko pesimismoak eraman zuen "Ama gaixo dago" obra antzerkiratzera.

Ondoren, eta Brecht urrutiratze konzeptoaren hari xehenean, bere ipuin helduenak idatzi zituen. Bi bildumek eskaintzen dizkigute ipuinok:

- "Cuando los peces mueren de sed" (1963).
- "Las manos grandes de la niebla" (1964).

Euskal Herriraten denean, Venezuelara hain gazterik joandako Martin hura herri aldatu batekin aurkituko da. Aldaketari gibela ematen dionak trena galdua du. Baina Martinen funtsa ez da aldaketa, bere bizitzari sentidua ematen dion euskal sustraia baino, eta, haria berriro bereganatuz, euskara batuaren haserako une zail haietan, "ZERUKO ARGIA"ren azken orrialdeek ongi ezagutu zuten garaiko euskararekiko pultso jatorra Martinek zenbait hizkuntzalariri egindako elkarhizketen bidez.

Beraz, Martinek euskarara jo zuen berriro ere. Beharrezkoa zuen uztartze hura. Hala ere tresna aztunegia zaio. Razionalizatza beharturik aurkitzen da Martin bere hizkuntza, baina gainezka daduka barrena. Bere senak ezin du hizkuntza razionalizatzerik eraman, teknika intuizioaren gainetik jartzerik onar. Garai hartan, eta arrazoinen hauengatik ito nahi ez zuen gizon ezagutu nuen Martin.

Badakigu arteak fisiko legetatik at dagoen errealitateari erantzun nahi liokela, eta errealitate hori interpretatu. Eta interpretatze edo konstatatze soil horretarako hitz da literaturgintzan tresna bakarra. Hitz mailua da. Eta mailua menderatzeko esku prestuak behar dira. Mailua eta eskuak. Hitz mailua eta gizona.

Erdarak, berriro ere, toki zabala izango du Martinen langintzan. Gurean gizonak, zenbaitetan, hitza ez du bere-berea, eta herri alienatze ikaragarri honetan, geure ez den mailua trebeki erabiltzera iritsi gara. Baroja, Salaberria, Ugalde. Hitzak gizona ukatu ala ez litzateke ziurren, kakoa. Martinek erabilitako mailua erdara izanik, bere alienatzea eta herriaren alienatzea interpretatua ditu.

"Hablando con los vascos", "Hablando con Chillida", "Las brujas de Sorjín" eta "Síntesis de la historia del País Vasco" diodanaren lekuko. Martin euskal prolematika, euskal historia, euskal artegintzaren ikerle bilakatu zaigu.

Andoindar honen bibliografiaren eskutik, ezin ahantz dezake inork euskara eta Euskal Herriarekko izan duen arreta bizia. Eta hau diodanean, ez naiz Martinen lan politikoaz mintzatzen ari Alderdiko gizon bezala, bere lan kulturalak agertzen digun perspektiba zabalaz baizik.

...Arrotz kalean bizi ez zaigunez

Artearen sena ez da pentsamendu soil batetan bazkatzen. Artearen sena ez da sentimenduen aho-gozatze xehean loratzen. Artea ez da traszendentziaren muga heldu-ezinetan etzaten.

Artearen gaia gizona da. Ez edozein gizon, bere lekua aurkitu nahi lukeen gizona baizik. Desoinarritua aurkitzen den eta oinarri bila borrokatzen den gizonaren egon-ezina da artearen gaia.

Gizonaren oinarri falta, edo-ta herri oso baten oinarri falta, oinarritu nahia. Garaiak eta bizi-lekuak mugatzen dute gizon soilaren edo gizon komunitarioaren –herriaren– aztertu beharra. Esistentzialismoak batetik eta 98 belaunaldiak bestetik, aukera zberdinak egin zituzten. Gizonaren sustraia aurkitu nahi izan zuen esistentzialismoak –gogora dezagun Txilardegiren "Peru Leartzako" eta Espainiaren dekadentzia 98 belaunaldikoak.

Gure literaturgintzan herriaren arazoa ageri da etengabe. Pertsona baten jokaera eta borroka ez da herri osoaren borrokaren ispilu baizik.

Eta herrigintza honen harian erabili du, ia beti, Martin Ugaldek bere luma. Gurean publiko ezina den eta Venezuelan 1961an argitaratu zuen "Iltzailleak" ipuin bildumak argi agertzen digu Ugalderen kezka nagusi hau. Gerra ondorengo resistentziaren inguruan sorturiko ipuin haiek euskal narratibagintzako lehen lan politikotzat har genezazke. Honela dio Andima Ibiñabeitiak liburuaren hitzaurrean:

Bearrezkoa genuen euskotarrok er gudu-literatura gartsu bat, eta literatura orri asiera ezin obeagoa ematen dio Martin Ugalde'k bere ipui auekin. Negargarria, baiña oraindik euskaldun batek ere ez ditu liburuetan eman orduko gertari deitoragarriak.

"Iltzailleak" honekin batera baditu beste hiru liburu euskaraz argitaratuak: Umeentzako kontuak (1966), Ama gaiso dago (1963) eta "Itsasoa ur-bazter luzea da". Azken hau ez da originalki euskaraz egina; Dionisio Amundarainek euskaratu zizkion

bertan agertzen diren lau ipuinak, Ugaldereen nahia izan bai zen ipuinok euskaraz erdaraz baino lehenago argitaratzea. Jokaera berdina eraman nahi izan zuen "Las brujas de Sorjín" novelarekin ere, baina ez zitzaion posible izan, lan ikaragarri hartaz prestatuko zen euskaratzailerik aurkitu ez zuenez.

Honez geroz, esan dezagun Martin Ugaldek trebekien erabiltzen duen mailua, lehen esan bezala, erdara dela. Hitzegiten dugunean, ez gara gramatikaz arduratzen, menderaturik dugu hizkuntza, ezaguna zaigu hizkuntza eta haren teknikak hitzegin behar dugun guztitan gogoan hartzea ezinezkoa zaigu. Norberaren hizkuntzaren desarroiloa intuitiboa da zati haundienean, eta ikasia, geureganatua ehundikako zatiki ttipienez.

Horregatik, bere sena ongi gorde duen Martin Ugalderi ez zaio ito, ez zaio hil literatur joerarik, euskal ikusmolderik.